

## UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Borja Corominas Fisas Talde Popularreko bozeramaileak, Udaltzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikulua oinarri, **ARAU PROPOSAMEN** hau aurkezten du **ondasun higiezinaren gaineko zerga ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA**ren inguruan, Udaltzaren azter dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Zerga-politikaren helburua ez da zergabilketa bakarrik izan behar. Erakunde publikoek erabili behar duten tresna bat da zerga-politika, beren eskumen-eremuan errealitatea lehentasun politiko batzuen arabera eraldatzeko. Zerga-politika da, zalantzarik gabe, gizartea eraldatzeko daukagun tresnarik garrantzitsuenak.

2020an, zerga ordenantzak aldatzeko eztabaidetan dagoeneko argudiatu zen etxebizitza hutsei aplikatutako OHZren igoerak (% 25etik % 50era) lagunduko zuela Donostian alokairuko etxebizitza-parkeko etxebizitza-kopurua areagotzen. Hala ere, Donostian hutsik dauden etxebizitzaren kopurua etengabe areagotzen ari da, gobernu-taldeak kopuru hori murrizteko ahaleginak egin dituen arren. Oraingoan ere, EAJren eta PSEren politika esku-hartzaileek, betiere EH Bilduk eta Podemosek babestuta eta bultzatuta, ez dute emaitzarik eman.

Beraz, uste dugu neurri hori alferrikakoa dela, zergabilketa baino ez duela xede, eta ez duela eraginik Donostiak aspalditik bizi duen etxebizitza-arazoaren konponbidean. Gainera, udal-gobernu batek ere ezin izan du arazo hori geldiarazi edo ez du arazo hori geldiarazten jakin.

Etxebizitza hutsei aplikatutako OHZren erreikargua kentzea proposatzen dugu. Hori dela eta, honako **ARAU PROPOSAMEN** hau aurkezten dugu:

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantzaren 20. artikulua ezabatzea.



▶ PP Talde Politikoa  
Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)  
20003 Donostia / San Sebastián



Donostian, 2022ko abuztuaren 3an

Borja Corominas Fisas,  
Udal Talde Popularreko bozeramailea